



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 24a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, subiranotasun energetikoari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonena baita. Mozioa erretiratzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekin behar diren zuzenak egin ditzan foruzainek erretiroa hartzeko adina aurreratzeko egin beharreko administrazio-izapideak azkartu ditzan. José Suárez Benito jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Iruña-Sunbilla tarteari buruz Nafarroako Arartekoak egindako eskaria aintzat har dezan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da, Konstituzio Batzordearen baitan, urgentziaz dei dezan Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzerdea, tokiko hauteskunde-elkarteak eta alderdiak direla-eta sortutako arazoei konponbidea emateko behar diren legegintza-aldaketak egiteari begira. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu ADANOrekin batera egin beharreko ekitaldi instituzionalarekin, haren kanpainei ikusgarritasuna emate aldera. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatuen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin, zeina irailaren 23an baita. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).

- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketak gehien ukitutako sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako enpresa-sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketaren programazio berekiari eta deialdiari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (21. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (22. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (23. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).

- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren deialdiari eta toki entitateekiko hitzarmenari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (25. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako udalekin eta mankomunitateekin egindako hitzarmenari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (26. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako laguntza tekniko kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (27. or.).
- Galdera, onetsitako honako mozio honi buruzkoa: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako gazte elkarten gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gako baita”. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Navarra Music Comission proiektuari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Navarra Live Music proiektuari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Caparrosoko abeltzaintzaren eta biogas-plantaren CO₂ emisioen aitortzei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, indarkeria dela-eta EH Bilduk duen jarreran izandako aurrerapausoei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (32. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberaren 2021eko plantilla organikoaren aldaketa (33. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2021eko eztabaida dela-eta (34. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, subiranotasun energetikoari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, subiranotasun energetikoari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaizatzeko.

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, subiranotasun energetikoari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonen baita.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean

erretiratuen etxe bat egonen baita, eta 2021eko irailaren 10eko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00130).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Espainiako Gobernuarekin behar diren zuzenak egin ditzan foruzainek erretiroa hartzeko adina aurreratzeko egin beharreko administrazio-izapideak azkartu ditzan.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Espainiako Gobernuarekin behar diren zuzenak egin ditzan foruzainek erretiroa hartzeko adina aurreratzeko egin beharreko administrazio-izapideak azkartu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Alderdi guztietako ordezkari politikoei idatziz eta ahoz aldeztu dute aldiro legebiltzar honetan nahiz Kongresuan eta Senatuan foruzainek erretiroa hartzeko adina murrizketa-koefizienteen bidez aurreratzeko eskubidea dutela.

Ordezkariei publikoaren ardura da, bai eta erakundeetan botere betearazlea duten arduradunen ere, zuzenbide estatuaren honako printzipio orokor hau betetzea: «lan bera, baldintza berberak».

Polizien lanbidean aritzeak berekin dakartzan ezaugarri eta betekizun fisikoei erantzuteko behar den gaitasun fisikoa nahitaez gutxituz doa, neurri handiago edo txikiagoan, denborak aurrera egin ahala.

Ezin dugu ahanzi ezen poliziek, beren eginkizunak betetzean, segurtasuna mantendu eta herritar guztien eskubideak bermatu behar dituz-

tela. Higadura fisikoa eragozpena da segurtasun kidegoek betetzen dituzten zenbait jarduerari begira. Polizia-jarduna betetzean, horrek herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea jaistea eragin lezake, bai eta arrisku bat ere, zerbitzu hori ematen duten polizien segurtasunari eta osotasun fisikoari begira nahiz horien zerbitzua eskatzen duten herritarrenari begira ere.

Gai honi buruzko jarrera politikoa behin finkatuta, arduradun publikoek koherenteak izan behar dugu hitzez nahiz egitez; bestela, azalpenak eman beharko genituzke.

Jokoan dugu demokraziarekiko, erakundeekiko, herritarrekiko eta are foru parlamentari garen aldetik gurekiko errespetua ere.

Legebiltzar honetan talde parlamentario guztiek adierazi dute erretiroa hartzeko adinari dagokionez gure Foruzaingoak beste polizia kidego batzuen aldean bizi duen diskriminazioa zuzentzearen alde daudela. Hori horrela, parlamentari garen aldetik dugun erantzukizuna betetz, Foru Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren premiatu behar ditugu egin beharreko izapideak egin ditzaten eta hartu beharreko erabakiak har ditzaten, Foruzaingoan erretiroa hartzeko adina aurreratu dadin, beste polizia kidego batzuetan lanbide hori bera duten Nafarroako nahiz Espainiako beste funtzionarioei onartzen zaien modu bertsuan.

Horregatik guztiatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromiso irmoa duela foruzainek erretiroa hartzeko adina aurreratzeko eskubidearen defentsarekin, 2011ko azaroaren 18ko 1698 Errege Dekretuan ezartzen diren prozedura eta baldintzekin bat; horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Espainiako Gobernuaren aitzinean egin beharreko zuzenak egin ditzan, zertarako eta hark egin beharreko administrazio-izapideak azkartu ditzan, foruzainek erretiroa hartzeko adinaren aurreratzeko lehenbailehen gauzatzeko helburuarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du araudian ezartzen diren administrazio-izapideak urgentziaz egin ditzan eta

hartu beharreko erabakiak har ditzan, Nafarroako Foruzaingoko kolektiboaren erretirorako adina aurreratzea gauzatzeko koefiziente murriztailearen sistemarekin bat, lanbide hori jarduera nekagarri, arriskugarri, osasungaitz edo toxikoen arte-

an sartzen den aldetik, beste polizia-kidego batzuetako kideentzat ezarrita dagoen moduan.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Iruña-Sunbilla tarteari buruz Nafarroako Arartekoak egindako eskaria aintzat har dezan.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepideko Iruña-Sunbilla tarteari buruz Nafarroako Arartekoak egindako eskaria aintzat har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio

hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, N-121-A errepidearen trazadurari buruz Nafarroako Arartekoak egindako eskaria bete dadin.

N-121-A errepidearen trazadurarik egokienari dagokionez Ararteko Enériz jaunak oraintsu emandako ebazpenak dio arrazoizkoa litzatekeela Iruñetik Sunbillara bitarteko tartean erreiak bikoiztea, hartara bide horren segurtasuna areagotuko litzatekeelako.

Aldiz, Ciriza kontseilariak orain dela gutxi iragarri du ez duela Arartekoaren eskaria aintzat hartuko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Arartekoaren eskaria aintzat har dezan eta Iruñetik Sunbillara bitarteko tarterako 2+2 konponbidea behin betikoa izateko azterlan bat egin dezan.

Nafarroan, 2021eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da, Konstituzio Batzordearen baitan, urgentziaz dei dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzerdea, tokiko hauteskunde-elkarteak eta alderdiak direla-eta sortutako arazoei konponbidea emateko behar diren legegintza-aldaketak egiteari begira.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita, Konstituzio Batzordearen baitan, urgentziaz dei dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzerdea, tokiko hauteskunde-elkarteak eta alderdiak direla-eta sortutako arazoei konponbidea emateko behar diren legegintza-aldaketak egiteari begira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Irailaren 14an, Diputatuen Kongresuak ez zuen onetsi aintzat hartzea Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena, zeina Nafarroako Parlamentuak onetsi eta Kongresura igorri baitzuen.

Lege horiek hein batean aldatzeko proposamen horren xedea zen herritarrek gure herrietako afera publikoetan parte har dezaten bultzatzea, eta bi helburu argi zeuzkan:

Batetik, udal hauteskunde-prozesuetan beharizan errealetara doitzeko gastu-muga. Izan ere, gogora ekarri beharra dago Hauteskunde Araubi-

de Orokorrari buruzko Lege Organikoa hauteskunde-kanpainako gastu-muga bat ezartzen duela herri bakar batean aurkezten diren hauteskunde-elkarte eta alderdi txikientzat (1,11 euro-zentimo biztanleko), alderdi nagusiek duten probintzia-osagarria edukitzeko aukerarik izan gabe.

Bigarren helburua da 50.000 euroko gutxieneko isuna kentzea, ezarritako gehieneko hauteskundegastua % 10 gainditzen den kasuetan, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa azken aldiz aldatu zenean jaso zen moduan.

Diputatuen Kongresuak onetsi ez duen ekimean orobat proposatzen zen neurri horiek atzeraginezko ondorioak izan zitzaten, halako moduan non 2015eko eta 2019ko udal hauteskundeetara aurkeztu zirenei aplikatuko litzaizkiekeen.

Proposamen horri ezetza eman izanak kinka larrian jartzen ditu elkarte eta alderdi txiki asko, zeren eta 2015ean abiarazitako zehapen-espedientei –abian dira, abian direnez– 2019an abiarazi litezkeenak batuko baitakizkieke.

Ekimena aintzat hartzeari buruzko eztabaidan proposamenaren aurka erabili zen argudioetako bat izan zen Diputatuen Kongresuak azpibatzerde bat eratzea onetsi zuela iragan apirilean, hauteskunde-araubidearen erreformaren inguruko aferak jorratzeko.

Horiek horrela, arazo hori konpontzen saiatzen jarraitu beharra dago, herri askotako bizilagunei parte-hartze demokratikorako eskubide osoa itzultzeko. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du, Konstituzio Batzordearen baitan, urgentziaz dei dezan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzerdea, tokiko hauteskunde-elkarteak eta alderdiak direla-eta sortutako arazoei konponbidea emateko behar diren legegintza-aldaketak egiteari begira.

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu ADANOrekin batera egin beharreko ekitaldi instituzionalarekin, haren kanpainei ikusgarritasuna emate aldera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du datorren asteazkenean, irailaren 22an, 12:00etan egitekoa den ekitaldi instituzionalarekin, ADANO-Nafarroan Minbizia duten Hurrei Laguntzeko Elkartearekin batera, hilabete honetan zehar egiten ari diren kanpainei ikusgaitasuna emate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada datorren irailaren 24an urre-kolorez argiztatzea, hori izanik haur-minbiziaren aurkako borrokaren nazioarteko ikur den begiztaren kolorea” (10-21/DEC-00055).

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du datorren asteartean, irailak 21, 12:00etan, eta

bertan talde parlamentarioek aurkeztutako adierazpen instituzionalaren irakurraldi ozena egingen da. Ekitaldian AFANek ere parte hartuko du.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du irailaren 21ean, asteartez, bere fatxada magenta kolorez argiztatzea” (10-21/DEC-00056).

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin, zeina irailaren 23an baita.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin, zeina irailaren 23an baita.

2. Nafarroako Parlamentuak emakumeak pobreziaren feminizazioagatik eta gizonen eska-riagatik prostituituak izatera behartzen dituzten kausak desagertzearen alde borrokatuko duen gizarte-eredu bat defendatzen du, eta kausa horiek desagerrarazteko eta ondorioei aurre egin ahal izateko jardun behar dugu. Emakume horien sexu-esplotazioa bateraezina da berdintasunaren, pertsonen duintasunaren errespetuaren eta emakumeen giza eskubideen defentsaren gizarte-ere-
duarekin.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortu egiten du krisi honetan ezinbesteko zerbitzuak ematen jarraitzen duten organizazioen eta kolektiboen lana: biktimak bilatzen eta justizia, osasungintza nahiz laguntza eta babes soziala izan dezaten laguntzen, eta abusu nahiz esplotazio egintza gehiago gerta dadin ekiditen.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela sexu-esplotazioaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egiten jarraitzea, gizartearen sentsibilizazioa eta, ondorioz, delinkuentzia anto-
latuaren irabazi handitako negozio-bolumena mugitzen duten delituzko jokabide mafioso horien errefusa soziala lortzen laguntzeko” (10-21/DEC-00057).

Iruñean, 2021eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” 4 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Fitxaren arabera, neurri hori garatzeko duen aurrekontua, 2021ean, 1.500.000 eurokoa da, eta aurreikusten den kudeaketa modalitatea da “Banakako ebaluazioaren dirulaguntzen deialdia”.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbateoekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00173 galdera idatziari emandako erantzunean honela adiera-

zi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzekkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Enplegagarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” 4 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena, eta horretarako, fitxaren arabera, 180.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egonen den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuko laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

en Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna. Fitxaren arabera, neurri hori garatzeko duen aurrekontua, 2021ean, 2.000.000 eurokoa da, eta aurreikusten den kudeaketa modalitatea da “Banakako ebaluazioaren dirulaguntzen deialdia”.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbateorekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00176 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Langabetuentzako dirulaguntzak,

autonomo gisa has daitezzen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena, eta horretarako, fitxaren arabera, 360.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egonen den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuek laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Halaber, fitxaren arabera, 2021ean, 100.000 euroko aurrekontua du neurri hori garatzeko. Eta aurreikusten den kudeaketa modalitatea da “enpresa publikoari enkargua”.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbateorekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu

Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko? Zer enpresa publikoekin garatuko da?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzekeo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzekeo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00178 galdera idatziari emandako erantzunean honela adiera-

zi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena, eta horretarako, fitxaren arabera, 40.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egonen den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuek laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Fitxaren arabera, neurri hori garatzeko duen aurrekontua, 2021ean, 100.000 eurokoa da, eta aurreikusten den kudeaketa modalitatea da “enpresa publikoari enkargua”.

Zergatik aukeratu da kudeaketa-modalitate hori? Zehazki zer enpresa publikori emanen zaio enkargua? Zer irizpideren arabera?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Fitxaren arabera, neurri hori garatzeko

duen aurrekontua, 2021ean, 160.000 eurokoa da, eta aurreikusten den kudeaketa modalitatea da “Banakako ebaluazioaren dirulaguntzen deialdia”.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbatekoarekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00184 galdera idatzia emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Kudeaketa modalitatea deialdia gehi toki entitateekiko hitzarmena izanez gero:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak noizko aurreikusten du deialdia? Dagoeneko, akordiorik egin al da toki entitateekin? Baiezkoan, zer entitateekin eta zer irizpidetan oinarrituta?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketak gehien ukitutako sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketak gehien ukitutako sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00185 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehituta: “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Jarduketa-faseen deskribapenean jasotzen da “lankidetzaren sistema ezarriko dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta COVIDak gehien ukitutako sektoreen artean (...)”.

Zertan zehazten da lankidetzaren sistema hori eta zer sektoreekin?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako enpresa-sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako enpresa-sektoreekiko lankidetzaren sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietateko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00186 galdera idatziaz emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehituta: “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Jarduketa-faseen deskribapenean jasotzen da “lankidetzaren sistema ezarriko dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta COVIDak gehien ukitutako enpresa-sektoreen artean (...)”.

Zertan zehazten da lankidetzaren sistema hori eta zer enpresa-sektoreekin?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00187 galdera idatziz emandako erantzunean honela adiera-

zi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena, eta horretarako, fitxaren arabera 48.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egonen den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuek laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz”¹⁹ DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna. Halaber, fitxaren arabera, 2021ean, 150.000 euroko aurrekontua du neurri hori garatzeko.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbatekoekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketaren programazio berekiari eta deialdiari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketaren programazio berekiari eta deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00189 galdera idatzari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek

zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna. Ezartzen denez, kudeaketa-modalitatea programazio berekia eta deialdia izanen da.

Zertan zehazten da programazio berekia (prestatuntza-ekintzen zerrenda, zenbatekoak, betetze-maila)? Zer fasetan dago deialdia?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00190 galdera idatzari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna. Jarduketa-faseen deskribapenean jasotzen da “lankidetzaren sistema ezarriko dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresen artean (...)”.

Zertan zehazten da lankidetzaren sistema hori eta zer sektoreekin?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketan gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera

hau aurkeztzen du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00191 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Jarduketa-faseen deskribapenean jasotzen da “lankidetzak ezarriko direla gizarte zerbitzuetako mankomunitateekin eta udalekin (...)”.

Zertan gauzatuko dira lankidetzak horiek?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00192 galdera idatzari emandako erantzunean honela adiera-

zi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzekkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna, eta horretarako, fitxaren arabera 40.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egonen den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuko laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketa garatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Halaber, fitxaren arabera, 2021ean, 500.000 euroko aurrekontua du neurri hori garatzeko.

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer zenbateoekin garatzen ari da Nafarroako Enplegu Zerbitzua bere ardurapean duen jarduketa hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarduketa hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren deialdiari eta toki entitateekiko hitzarmenari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren deialdiari eta toki entitateekiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00194 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzekkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete ira-

gan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Ezartzen denez, kudeaketa-modalitatea deialdia gehi toki entitateekiko hitzarmena izan da.

Zertan zehazten toki entitateekiko hitzarmen hori? Baiezkoan, zer toki entitateekin eta zer irizpidetan oinarrituta? Zer unetan daude deialdia eta hitzarmena?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00194 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzekkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Jarduketa-faseak deskribatzerakoan, “PEPIen programazio berria diseinatzea (...)” jaso zen.

Zertan zehazten da programazio berri hori eta zer irizpideren arabera?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako udalekin eta mankomunitateekin egindako hitzarmenari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako udalekin eta mankomunitateekin egindako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00196 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitzekkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egonen direla. Horri gehitzen badiogu “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak (PEPI)” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren ardura duena. Jarduketa-faseen deskribapenean jasotzen da “udalekin eta mankomunitateekin hitzarmen bat egitea PEPIetara iristeko (...)”.

Zertan zehazten da hitzarmen hori? Zein udal eta mankomunitaterekin eta zein irizpidetan oinarrituta?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” jarduketarako laguntza teknikoa kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontu-partidei eta zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den maiatzean, 10-21/PES-00197 galdera idatziari emandako erantzunean honela adierazi zitzaigun: “Funts horiek gauzatzeko baldintzak

eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne”. Horrez geroztik lau hilabete iragan direnez, ez dugu zalantzarik dagoeneko baldintza horiek zehaztuta egon direla. Horri gehitzen badiogu “Kolektibo zaurgarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak(PEPI)” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren fitxa teknikoan ezartzen dela Nafarroako Enplegu Zerbitzua dela jarduketa horren arduraduna, eta horretarako, fitxaren arabera 200.000 euroko aurrekontua duela neurri horrekin batera egon den laguntza teknikorako. Honako hau jakin nahi dugu:

Zer aurrekontu-partidarekin eta zer diru-kopururekin kontratatuko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuek laguntza tekniko hori? Orain arte zer ekintza garatu du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laguntza tekniko hori edukitzeko? Zer administrazio-prozedura baliatu du? Zer entitate aurkeztu dira horretara eta zer erakunderi esleitu zaio eta zer baldintzatan?

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, onetsitako honako mozio honi buruzkoa: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gazte elkarten gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gakoa baita”.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko honako galdera hau: “onetsitako honako mozio honi buruzkoa: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gazte elkarten gida gaurkotu dezan, elkartegintza errazteko gakoa baita”.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Ekainaren 10ean egin genuen Osoko Bilkuran, Nafarroako sozialisten talde parlamentarioak aur-

keztutako mozio bat onetsi zen, honako hau eskatzen zuena:

1. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eta toki erakundearen arteko Mahaia sor dezan, gure foru erkidegoko gazte elkarten egoera aztertzeko.

2. Nafar gazteen artean gazteen elkartegintza erraztuko duen gida berri bat argitara dezan. Gida horrek genero-ikuspegia ziurtatu beharko du ekintza eta ildo estrategiko guztietan, emakume gazteek erabakiak hartzen diren organoetan parte hartzea bultzatuta.

3. Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina bat egin dezan, gazteen elkartegintza aldezteko.

4. Beharrezkoak diren mekanismoak ezar ditzan, halako moduan non gazte-elkarte bat elkarten erregistroan inskribatzen den unean automatikoki inskribatuko baita Nafarroako Gazteriaren Institutuaren elkarten erregistroan ere.

5. Gazteen parte-hartzerako espazio autokudeatuak bultzatzea eta babes ditzan.

Puntu horietako bakoitzari dagokionez, Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du eta zeintzuk egingen ditu horiek denak betetzeko? Adierazi gogoan darabiltzazuen epeak ere.

Iruñean, 2021eko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Navarra Music Comission proiektuari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Navarra Music Comission proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Kultura eta Kirol Departamentuak orain dela zenbait hilabete eman zuen Navarra Music Comission proiektuaren berri, baina oraindik ezer ere ez dakigu horri buruz. Zer esan diezagukezu horri buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Navarra Live Music proiektuari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Navarra Live Music proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Navarra Live Music proiektua dela-eta dakigun gauza bakarra da standak paratuko dituela BIME PROren bi ediziotan eta FITUREn. Zer kontu diezagukezu proiektu horri buruz?

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, kirol-instalazioei buruzko azterlanaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kultura eta Kirol Departamentuak noiz jakinaraziko ditu kirol instalazioei buruzko azterlanaren emaitzak? Noiz hasiko da taxutzen Gobernuak orain dela zenbait hilabete iragarritako kirol instalazioei buruzko plana?

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren eta biogas-plantaren CO₂ emisioen aitortzei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren eta biogas-plantaren CO₂ emisioen aitortzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, CO₂ emisioak jakinarazi behar al dituzte, 34/2007 Legeak ezartzen duen moduan, Caparrosoko abeltegitzarrak eta biogas-plantak, zeinen titularrak Valle de Odieta SCL eta HTN SL baitira eta ingurumen baimen integratua baitute?

Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuak gaurkotu egin zuen atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa, eta errege dekretua aplikatzeko oinarritzko xedapenak ezarri zituen, komunikazioari eta publizitateari buruzko betekizunak barne. Gobernuaren ustez, errege dekretu horren bidez araututako jardueretan sartzen al dira instalazio horietarako baimendu diren jarduerak (7.000 abelburutik goitiko abeltzaintza intentsiboa eta biometanizazio planta)?

CO₂ emisioen zer aitortpen egin dituzte enpresa horiek 2010etik 2020ra bitarte? Zer eduki zeukaten aitortpen horiek?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen aldetik, honako hau jakin nahi dut Vianako Andre Maria elizari eta haren balizko egokitze- eta zaharberritze-obrei buruz:

• Zenbat bilera egin dira Artzapezpikutzarekin gai hori jorratzeko, eta zer konpromiso hartu du Gobernuak?

Iruñean, 2021eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, indarkeria dela-eta EH Bilduk duen jarreran izandako aurrera-pausoei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, indarkeria dela-eta EH Bilduk duen jarreran izandako aurrerapausoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Abuztuaren 8an “El Diario Vasco” egunkarian egin zioten elkarrizketa batean, ETaren indarkeria gaitzesteari buruz EH Bilduk duen jarreraz Nafarroako Gobernuak Lehendakariak honako hau esan zuen: *estos se han dado más cuando hablas con ellos y ellas en privado*. Zer aurrerapausoz ari da Nafarroako Lehendakaria, alderdi horrekiko akordioak mantentzea justifikatzen dutenak?

Iruñean, 2021eko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren 2021eko plantilla organikoaren aldaketa.

Kontuen Ganbera arautzen duen Foru Legearen 32.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz ganberako langileei aplikatu behar zaien Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14. artikuluko ezartzen du urtero-urtero onetsi behar dela erakundearen plantilla organikoa, lanpostuen zerrendan adierazita kasuan kasuko maila, betekizunak, ordainsari osagarriak eta, kasua balitz, izendapen askez bete behar ote diren.

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko urtarrilaren 26ko ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren 2021eko plantilla organikoa onetsi zen (Nafarroako Parlamentuko 2021eko otsailaren 5eko 14. Aldizkari Ofiziala).

2021eko abuztuaren 6ko ebazpenaren bidez, erakunde honetako lehendakariak Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamendua aldatu zuen, sistema informatikoetako teknikarien, goi mailako teknikarien eta maila ertaineko teknikarien eginkizunetan sartze aldera informazio-sistemen auditoretzak egiteari buruzkoak, bai eta teknikari horiek ingurune informatizatueta fiskalizazioetan parte hartzeari buruzkoak ere.

Erakundeko idazkari nagusiak abuztuaren 6an informatu zuenez, erakundeak egun dauzkan beharizanen ondorioz heldu dira esleitutako eginkizun berriak, eta lehen esleitura zeuzkaten eginkizunen aldean egin beharreko lanari dagokionez zailtasuna eta erantzukizuna areagotzea dakarte berekin eginkizun berriek, halako moduan non eginkizun-aldaketa hori kontuan hartu behar baita lanpostu horiei plantilla organikoan esleitutako lanpostu-osagarria finkatzeko orduan.

Hortaz, ikusita erakundeko idazkari nagusiak abuztuaren 6an aurkeztutako proposamena, zeinak Ganberako administratzaileak eta Kontu-hartzaileak eginiko aldeko txostenak jaso baitu, eta Langileen Batzordeak alde aurretik txostena eginda, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen nahiz eskumenak eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1985eko urtarrilaren 23ko Erabakiaren

bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak baliatuta, honako hau ERABAKI DUT:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren 2021eko plantilla organikoaren aldaketa onestea, zertarako eta "sistema informatikoetako goi mailako teknikari" lanpostuari dagokion lanpostu-osagarria haren mailari dagokion hasierako soldataren % 82koa izanen dela ezartzeko, eta "sistema informatikoetako erdi mailako teknikari" lanpostuari dagokiona, berriz, haren mailari dagokion hasierako soldataren % 67koa.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman dezan.

Hirugarrena. Erabaki hau erakundeko idazkari nagusiari, administratzaileari, Kontu-hartzaileari eta Langileen Batzordeari igortzea eta erakundearen web-orrian argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki honek erakundearen web-orrian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka honako errekurtso hauetako bat aurkezten ahalko da:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

a) Gora jotzeko errekurtsoa, Parlamentuko Mahaiari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hamabost egun balioduneko epean.

Iruñean, 2021eko irailaren 14an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2021eko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinetan eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorri Osoko Bilkurak eztabaida dezan (10-21/CDP-00005).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Erkidegoaren egoerari buruzko 2021eko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzako urteko lehen bilkura-aldi bakoitzaren hasieran, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkura-aldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean, Parlamentuko osoko bilkura berezia egin behar da erkidegoaren egoeraren gaineko politika orokorra eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak igaro du dagoeneko legegintzaldiaren erdialdea; COVID-19aren pandemiak markatu du garai hau, baina aurrera egin dugu Foru Komunitatearen garapenerako garrantzi handiko gaitetan, esate baterako, azpiegiturretan, hala nola Nafarroako Kanala, inbertsioetan, zerbitzu publikoen hobekuntzan edo autogobernua bultzatzean, eta hori guztia garapen sozial

eta ekonomikoko eredu berria bultzatu nahirik berrikuntzan, digitalizazioan, kohesioan eta iraunkortasunean oinarrituta.

Adierazle ekonomiko eta sozialak ikusita, baidakortasun zuhurrarekin begiratzen diogu urteamaiera honi. Egia esan, Gizarte Segurantzako afiliazio-markak hautsi ditugu, nabarmen murrizten ari da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan dauden langileen kopurua, industria-ekoizpena sustatzen ari gara, bai eta Lanbide Heziketa duala ere, desberdintasun-tasa txikiak dituen erkidegoa gara, eta horrek guztiak aukera ematen digu COVIDaren ondorengo etapari etorkizun positiboarekin aurre egiteko.

Badugu Nafarroa Suspertu Plana; inbertsio-apustu historikoa diren Europako funtsak ere bai; eta ekainean onetsi genuen Enplegu Plana. Tresna erabilgarriak dira horiek, beharrezkoak, eta markatuko dute dagoeneko gauzatzen ari garen berreskurapen horren bidea.

Bide hori eraikitzen jarraitzen dugu elkarrizketa politikoaren bidez eta gizartearekin batera, eta agerian gelditzen ari da bide emankorra dela.

Nafarroako hurrengo Aurrekontu Orokorren tramitazioari ekinen diogu, eta Europako funtsekin lotutako inbertsioak zehazten eta gauzatzen hasiko gara (ibilgailu elektrikoaren eta konektatuaren SEEPEarenak, adibidez), eta beste proiektu batzuetan ere lanean jarraituko dugu, hala nola nekazaritzako elikagaien sektoreko SEEPEan. Sektore estrategikoak dira, eta Nafarroa oso ongi kokatua dago horietan.

Baina, horrez gain, urratsak egin ditugu Nafarroaren oparotasunari lagunduko dioten bestelako gaitetan ere, hala nola bizikidetzarekin lotutakoetan. Une kezkarri honetan, frentismoak, gorrotoaren diskurtsoak eta tentsioak herritarrei helarazten zaizkienean, batzuetan politikaren beraren bidez, hausnarketa sakona egin behar dugu, bai erakundeak bai herritarren ordezkari izateko oho-

rea dugunok eredu izan gaitezen bizikidetzaren, pluraltasunarekiko errespetuaren eta aniztasunaren aldeko apustua eginez.

Urte bukaeran trafikoaren eta bide-segurtasunaren transferentzia gauzatuko dugu, eta espetxe-osasunaren transferentzia formalizatuta dago jada; beraz, esan bezala, Nafarroak aurrera egiten du, Nafarroako Gobernuak konpromisoa baitu herritarrekin, oparotasunarekin eta zerbitzu publikoen kalitatearekin.

Idazki honen bidez formalki eskatzen dut, Nafarroako Gobernuaren izenean, Parlamentura joan ahal izatea datorren azaroaren 4an eta 5ean, aurten egindako kudeaketaren berri ematera eta hurrengo ekitaldiaren oinarriak zein lehentasunak azaltzera, beti bezala entzuteko, solas egiteko eta akordioak adosteko borondatearekin Nafarroaren eta nafarren mesedetan.

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

